



EXPOSICIÓN “RADIOS ANTIGUAS” *Colección Agustín Erkoreka*

En el Museo de Orduña/Orduña Hiria Museoa
Sala de Exposiciones Temporales de Antigüedades
Del 15 de julio al 15 de enero de 2023

En horario de apertura del Museo
Viernes y Sábados de 17 a 20 h/ Sábados y Domingos de 11 a 14 h.

Acto de inauguración Viernes 15 de julio a las 19 horas

Contactos

Koldo Badillo director@ordunahiria.org 639471223
Agustín Erkoreka 657702609

ORDUÑA HIRIA MUSEOAN AINTZINAKO IRRATIEN BILDUMARIK ONENETARIKO BAT IKUSGAI

Gaur egungo munduko lisaburdinen erakusketarekin lortutako arrakasta handiaren ondoren, aintzinako irratia eta musika- tresna zaharren bilduma aurkezteko pribilegioa daukagu, seguruenik haren erakargarritasuna eta aniztasuna bisitaria ez du axolagabe utziko.

Aintzinako Erakusketa, aintzinetakoei eskeinitako Behin Behineko Aretoan kokatuko da, datorren uztailearen 15ean arratsaldeko 19:00etan, **Agustín Erkoreka**ren irradi bilduma zalearen eskutik eta Pilar Arruzaren, honen emaztea eta laguntzaile nagusia, erakusketa inauguratuko da. Berrehun eta berrogeita hamar aparatu inguru eta beste horrenbeste gai honekin lotutako piezak. XX. mendeko gizartean hain garrantzitsua den komunikabide burutsu honen sorreran eta bilakaeran murgilduko gaituzte.

Agustín, Mungian jaioa baina gaur egunean Marurin bizi; erretiratu, elektroteknikaren lan egin duena eta irratiarekiko zaletasuna, duela 45 urte baino gehiago hasi zuena. Zaletasun horren eragilea aintzinako irradi bat martxan jartzeko

ahalegina da, Zenith markakoa, bere anai marinela Kanadatik sorterriko baserrira ekarri zuena. Honez gero, beste batzuk etorri ziren, tresna guztiak funtziona zezaten helburu nagusia izanik, gaur egun 300 aletara hurbilduz, harrotasun handia sentituz lortutako bildumagatik.

Agustín eta Pilar, Euskal Herriko, Espainia zein Frantziako herrialde ezberdinetan murgildu dira: azoketan, brokantetan... aintzinako aparatuak eskuratu ahal izateko gero hauen konponketaz arduratuz.

Erretiroa iritsi denean dedikazioa askoz handiagoa izan da; eskuraketak interneten bidez egin dira, baita atzerriko bildumagile eta saltzaileekin harremanetan jarrita.

Aipatutako bilduma hau, jendaurrean, Mungian bakarrik erakutsi da eta Orduñan ezagutzera ematea ilusio handia ematen dio. Lehen irrati komertziala 1910ean patentatu zen, eta, beraz mende batean mundu osoan zehar fabrikatu da.

Agustín Erkorekak gogotsu hitz egiten du bere pieza guzti-guztiaz: marka ezberdinak : Zenith, Philips, Telefunken, Atwater Kent, General Electric...; mota ezberdinetako irratia: galena, balbulena, transistoreak; estilo ezberdinetakoak: mahaigainekoak, kaperakoak, bistako lanporetakoak... baita bilduma osatzen duten beste aparatu batzuk, hala nola, gramofonoak, musika-kaxak, bozgoragailuak.

Mundu interesgarri hau guztia Orduña Hiria Museoan ezagutu ahal izango duzu 2022ko uztailaren 15etik 2023ko urtarrilaren 15era bitartean.